| **2018KO EKAINAREN 27AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 27 DE JUNIO DE 2018.** |
|---|---|
| ============================ | ============================ |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| **ALKATEORDEAK** | **TENIENTES DE ALCALDE** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |
|---|---|

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Enrique Olaso García (GUK)
Oier Iturralde Fernández (EH BILDU)

Maite Arraiza Aramendia (EH BILDU)
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko lauretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a dieciséis horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**92.- GETXOKO UDALBALTZAK 2018KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

2018ko maiatzaren 30ean Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta aho batez onestea.

**92.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 30 DE MAYO DE 2018.**

Se aprueba por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 30 de mayo de 2018.

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK**

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES**

**93.- OSOKO BILKURAK EGITEKO ARAUBIDEA ALDATZEA.**

**93.- MODIFICACIÓN DEL RÉGIMEN DE SESIONES DEL PLENO.**

Proposamena irakurri ondoren, Koldo Iturbek hartu du hitza, eta esan du osoko bilkura arratsaldeetan biltzea adostu zela 2011. urtean. Osoko bilkuraren amaieran auzokoen parte-hartzea areagotzeko hartu zen erabaki hori. Hala ere, errealitateak erakutsi duenez, arratsaldeetan jende gutxiago etortzen da goizetan etortzen zena baino; hau da, arratsaldeko ordutegiak ez du auzokoen parte-hartzea areagotzen, ezta bermatzen ere, eta gainera, osoko bilkuren iraupenak gutxitu egin du bileraren amaieran parte hartzen duten pertsonen kopurua. Egoera ikusita, gobernu taldeak osoko bilkurak berriz ere goizez egitea proposatzen du, uste baitu goizetan auzoko gehiagok parte hartuko dutela; beste arrazoi bat da lana eta familia uztartu nahia. Bukatzeko adierazi du proposamena bat datorrela udal askotan egindakoarekin eta Getxoko udalean dauden talde guztiek emandako aldeko botoaren bidez Nafarroako Parlamentuan orain dela gutxi adostatutakoarekin; horrez gain, osoko bilkurarekin zerikusia duten lanetan aritzen diren langile, atezain eta zerbitzu laguntzaileen lan-baldintzak ere hobetuko lirateke.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Koldo Iturbe manifestando que en el año 2011 se acordó que el pleno celebrase sus sesiones a la tarde y las razones por las que adoptó ese acuerdo eran para potenciar la participación vecinal a la finalización del Pleno. Sin embargo la realidad ha demostrado que viene menos gente a la tarde que la que venía a la mañana, que el horario de tarde ni aumenta ni garantiza la participación vecinal y además la duración de los plenos ha hecho disminuir la participación del público que interviene al finalizar el pleno. El equipo de gobierno ante esta realidad plantea volver a celebrar los plenos a la mañana, ya que cree que mejorará la participación vecinal y también por razones de conciliación laboral y familiar. Finaliza indicando que esta propuesta está en línea con lo que se ha realizado en muchos ayuntamientos y recientemente se ha acordado en el Parlamento de Navarra con el voto favorable de todos los grupos presentes en el consistorio de Getxo y que también mejora las condiciones de los trabajadores, conserjes y servicios auxiliares que se movilizan en torno al Pleno.

Enrique Olasok esan du zinegotzia denetik zailtasunak izan dituela zeregin hori eta lana uztartzeko, eta hori logikoa iruditzen zaiola; hala ere, proposamenak aurre egiten du bere lan-ordutegiarekin eta desorekatu egiten du lan egiteko ordutegia, jarduera politikoarekin uztartzeko zailtasunak areagotuz. Aitortu du bere kasuan horrela dela, baina lan egiten duten guztien egoera antzekoa izango da, are gehiago, lan-baldintza prekarioak badituzte edo lan bila badabiltza. Azaldu duen udaleko

Enrique Olaso indica que desde que es concejal se le ha complicado conciliar esa labor con su vida laboral, lo cual le parece lógico pero la propuesta colisiona frontalmente con su horario laboral y desequilibra su horario de trabajo incrementando las dificultades de conciliar con la actividad política. Reconoce que ese es su caso pero que también en extensible a todos los que trabajan y más aún a aquellos que están en una situación de precariedad laboral o en busca de empleo. Constata que en el ayuntamiento son mayoría los

politikari gehienak profesionalak direla, baina zailtasun gehiago dituztenen eskubide politikoa babestu behar dela. Politikari profesionalen kopurua handitu nahi bada, proposamena horrekin bat dator, baina GUK taldearen ustez, politikan aritzeak aldi baterakoa izan behar du, lanbide bihurtu beharrean, politika lanbide gisa tratatuz gero, politikarien ikuspuntua aldatu egiten delako; politikan zenbat eta denbora gehiago aritu, orduan eta gehiago aldatzen da ikuspuntu hori. Proposamenak areagotu egiten ditu eskubide politikoak udalkide gisa gauzatzeko arazoak dituztenen zailtasunak, eta udala herritarrei irekitzeko asmoaren aurka doa.

políticos profesionales pero lo que hay que proteger es el derecho del ejercicio político de aquellos que tienen más dificultades. Si lo que se quiere es incrementar el número de políticos profesionales está propuesta va en ese camino pero GUK entiende que la presencia en la política debe ser temporal y no convertirse en una profesión porque el ejercicio profesional de la política cambia el punto de vista de los políticos y cuanto más tiempo llevan ejerciendo más cambia ese punto de vista. La propuesta aumenta las dificultades de aquellos que ya las tienen para ejercer sus derechos políticos como corporativos y va en dirección opuesta a abrir el ayuntamiento a la ciudadanía.

Nerea Guijarrubiak adierazi du EH Bilduk hainbatetan azaldu duela bere iritzia; izan ere, osoko bilkurak goizez egitearen kontra dago; arrazoitzen du zinegotzi batzuek lan egiten dutela, eta osoko bilkuren ordutegia ez datorrela bat laneko orduekin; pertsona horiek ez dihardute politikan bakarrik, eta aldaketak zaildu egiten du lan-eginkizunak betetzea. Beste arrazoi bat, garrantzitsuena, herritarren parte-hartzea da, osoko bilkurak goizez egiten badira, ikasleak eta langileak baztertu egiten direlako, gehienek goizez lan egiten dutelako. EH Bilduk ez du auzokoen parte-hartzea osoko bilkuretara bakarrik mugatzen; parte-hartze hori eskasa eta kritikoa iruditzen zaio. Ez daude ados gobernu taldeak herritarren parte-hartzeari buruz duen irizpidearekin; haien ustez, irizpidea iraungita dago eta ez dator bat gaur egungo errealitatearekin. Uste dute badaudela beste bide batzuk herritarren parte-hartzea sustatzeko, adibidez, ordutegi zehatz bat ezar daiteke, publikoak hitz egiteko. Ez dute onartuko herritarren parte-hartzea

Nerea Guijarrubia manifiesta que EH Bildu se ha posicionado repetidas veces en contra de que los plenos se celebren a la mañana y se mantienen las razones de su posición contraria como son la existencia de concejales que trabajan y colisionan con los horarios de los plenos porque no se dedican en exclusiva a la política y este cambio dificulta realizar sus labores profesionales. Otra razón, y la más importante, es la participación ciudadana, ya que realizar a la mañana margina a estudiantes y trabajadores que mayoritariamente trabajan a la mañana. EH Bildu no limita la participación vecinal a lo que actualmente se realiza en los plenos, que le parece escasa y critica. No comparten el criterio de participación ciudadana del equipo de gobierno que cree que está caducado y que no responde a la realidad actual. Cree que hay otros medios para incentivar la participación ciudadana como puede ser fijar una franja horaria concreta para la intervención del público. No van a admitir que se limite la participación

mugatzerik, eta kontrako botoa emango dute.

vecinal y votarán en contra.

Eduardo Andradek adierazi du PP proposamenaren alde egingo duela, aspalditik aldarrikatzen dute eta. Horren alde daude esperientziagatik; izan ere, osoko bilkurak goizez egiten zirenean, jende gehiago etortzen zen: ikasleak, erretiratuak, langileak eta abar. 2011tik, pixkanaka-pixkanaka desagertuz joan da herritarren parte-hartzea, osoko bilkurak luzeegiak izaten direlako; bere iritziz, bilkurak goizez egiteak mugatu egin du auzokoen parte-hartzea. Zinegotziak diren guztiek sektore batean edo bestean lan egiten dute, edo etxean, baina, azpimarratu duenez, zinegotzia izatea borondatezkoa da; hortaz, inork zinegotzia izateko erabakia hartzen duenean, dagoeneko badaki zertan datzan, eta jakin behar du zeri eman lehentasuna bere jardueran. Bere ustez, ez da udalkide bakoitzaren egoera partikularra kontuan hartu behar, herritarrengan pentsatu behar delako.

Eduardo Andrade manifiesta que el PP apoyará la propuesta que llevan tiempo reivindicando. Este apoyo lo hacen desde la experiencia ya que cuando se celebraban por la mañana los plenos acudía más gente de todo tipo, estudiantes, jubilados, trabajadores, etc. Desde 2011 la participación ciudadana ha ido desapareciendo ya que los plenos se alargan demasiado y cree que no haberlos celebrado por la mañana ha limitado la participación vecinal. Todas las personas que son concejales trabajan bien en un sector o en otro o en su casa pero insiste en que ser concejal es una opción voluntaria que cuando alguien asume ya conoce la realidad de su ejercicio y cada uno debe saber qué prioriza en su actividad. Estima que no debe de personalizarse en las cuestiones particulares de cada corporativo porque lo que debe pensarse es en la ciudadanía.

Enrique Pradak esan du politikan parte hartzeko aukera –zentzu zabalean– eman behar zaiela, bai auzokoei, bai udalkideei. Berak ez du uste proposamenaren arrazoia auzokoen parte-hartzea sustatzea denik. Klase politikoak badu eskubidea bere lanbidean jarduteko baldintza hobeak eskatzeko, baina aitortu du berez klase pribilegiatua dela, gizarte osoa kontuan hartuta. Herritarren parte-hartzea sustatu nahi izanez gero, neurri hori asmo horren aurkakoa da, politika profesionalizatzea bultzatzen duelako. Jokoaren arauak legealdi erdian aldatzea kritikatu du, ez baitio serioa iruditzen, ezta errespetuzkoa ere.

Enrique Prada indica que de lo que se trata es de posibilitar la participación política en todos los sentidos, tanto vecinal como corporativa. No cree que la causa de la propuesta sea aumentar la participación vecinal. La clase política tiene derecho a pedir mejores condiciones para el ejercicio de su profesión pero reconoce que es una clase privilegiada en sí misma respecto a la generalidad. Si se quiere potenciar la participación política de la ciudadanía esta medida va en contra ya que apoya la profesonalización de la política. Critica que se cambien las reglas del juego en la mitad de la legislatura, lo que no le parece ni serio ni respetuoso.

Proposamena bozkatu da eta honako

Sometida la propuesta a votación

emaitza hau lortu da: aldeko 16 boto, EAJ-PNV, PP, PSE-EErenak; kontrako 8 boto, GUK eta EH Bildurenak; abstentzio 1 (Ciudadanos).

obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 8 votos en contra, GUK, EH Bildu; 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz, Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengoa erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales, por mayoría se acuerda:

I.- 2015eko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran onartutako akordioa, hartutako erabakia indarrik gabe uztea.

I.- Dejar sin efecto el acuerdo adoptado en la sesión plenaria celebrada el 30 de junio de 2015, en cuanto al horario de las sesiones ordinarias del Pleno se refiere.

II.- Getxoko Udaleko ohiko Osoko Bilkurak hileko azken asteazkenetan goizeko 09:00etan egitea.

II.- Las sesiones ordinarias del Pleno del Ayuntamiento de Getxo se celebrarán preferentemente los últimos miércoles de cada mes, a las nueve horas de la mañana.

Abuztuko ohiko bilkura, talde politikoren batek eskatzen badu egingo da bakarrik, eskaera, sei lanegun aurretik eta gai zerrendan sartu nahi diren mozio eta interpelazioen zerrenda aurkeztuta

La sesión ordinaria correspondiente al mes de agosto sólo se celebrará si se solicita por cualquier grupo político con una antelación de seis días hábiles y con relación de Mociones e Interpelaciones que interese incluir en el Orden del Día del Pleno.

2.- Aipatutako eguna jai eguna balitz, ondorengo lanegunean egingo litzateke ordu berdinean.

2.- En el caso de que el citado día fuera festivo, la sesión ordinaria de dicho mes se celebrará el día hábil inmediato siguiente, a la misma hora.

## MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

## MOCIONES E INTERPELACIONES

### 94.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, SARRIKOBASO KALEKO 31.1-N ETXEBIZITZAK ERAIKI ETA URBANIZATZEARI BURUZKOA.

### 94.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/URBANIZACIÓN Y CONSTRUCCIÓN DE VIVIENDAS EN SARRIKOBASO 31.1.

Eduardo Andradek mozioa irakurri du. Azaldu duenez, gobernu taldeak, askotan, etxebizitza arloan planik ez duela egozten dio oposizioari, eta

Eduardo Andrade da lectura a la moción. Indica que muchas veces el equipo de gobierno achaca a la oposición que no tienen planes en

mozio horren bidez, hainbatetan iragarritakoa betetzeko eskatzen zaio gobernu taldeari. Izan ere, 2017. urtean hasi zen gune horretan jarduteaz hitz egiten, eta ondorengo urteetan hainbat aldiz errepikatuta ere, oraindik ez da ezer egin hamaika urte igaro badira. Ez da ulergarria, geroago proposatu ziren beste jarduketa batzuk burutu direla kontuan hartuta. Arreta erakarri nahi dute, gobernu taldeak proiektua Eusko Jaurlaritzan kudea dezan.

materia de vivienda y con esta moción lo que se pide es que el equipo de gobierno cumpla lo que ya ha anunciado en repetidas ocasiones. Indica que de actuar en esta zona se empezó a hablar en el año 2007 y se ha repetido varias veces en años posteriores y aún nada se ha hecho pese a que han transcurrido once años y no lo entienden cuando otras actuaciones posteriores se han culminado. Es una llamada de atención para que el equipo de gobierno gestione este proyecto ante el Gobierno Vasco.

Joseba Arregik hirigintza-eraldaketako prozesuaren berri eman du. Gogorarazi du, hain zuzen ere, 2007. urtean, Santa Eugenian babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea aurreikusten zela, eta Osoko Bilkurak lurzoru hori gobernuarekin trukatzea erabaki zuela; ondorioz, beharrezkoa izan zen trukea izapidetzea eta balizko lurzoruak aurkitzea. Azkenean, Sarrikobasoko lurzorua aukeratu zen, hau da, udalaren jabetzakoa ez zen lurzoru bat. Horrek, berriz ere, izapide konplexuak betetzeko beharra ekarri zuen, lurzorua ukitutako jabe guztiei erosi behar zitzaielako. Hirigintza-kudeaketa burutu egin da, eta gaur egun udala da lursailaren jabea, hortaz, lursailen trukea dagoeneko formaliza daiteke Eusko Jaurlaritzarekin. Espediente horretan lanean ari dira, eta eraikuntza-proiektuak prestatzen ari dira, urbanizazio-proiektua idatzia dago eta. Uste du Eusko Jaurlaritzarekin burutzeko truke espedientea laster aurkeztuko dela Osoko Bilkuran, eta proiektuak abian jarriko direla.

Joseba Arregi da cuenta de lo que es un proceso de transformación urbanística. Recuerda que en el año 2007 la previsión era construir VPO en Santa Eugenia y el Pleno acordó permutar con el gobierno ese suelo por otro y eso ha exigido tramitar la permuta, localizar suelos posibles definiéndose finalmente el suelo de Sarrikobaso que no era de propiedad municipal, lo que ha exigido una compleja tramitación para poder adquirir la propiedad a todos los propietarios afectados. Actualmente la gestión urbanística está finalizada y el ayuntamiento es propietario de la parcela por lo que ya se puede formalizar la permuta de parcelas con el Gobierno Vasco y se está trabajando en dicho expediente y también en los proyectos de construcción, ya que el proyecto de la urbanización está redactado. Cree que en breve se presentará al Pleno el expediente de pemuta con el Gobierno Vasco y se iniciarán los proyectos.

Enrique Pradak adierazi du ez dutela mozioaren aldeko botorik emango, baina ez etxebizitza sozialak eraikitzearen kontra daudelako, baizik eta HAPOaren berrikuspena egiten ari

Enrique Prada manifiesta que no van a apoyar la moción pero no porque no están a favor de construir viviendas sociales sino porque está en proceso de revisión el PGOU y no quieren afianzar

dela kontuan hartuta, egungo HAPOa beharbada etorkizunekoarekin zerikusirik izango ez duten jarduketekin irmotzea nahi ez dutelako. Hori dela eta, HAPOa lehenbailehen berrikusteko eskatzen dute, eraikuntza azkar egin beharrean.

el actual PGOU con actuaciones que no está demostrado que tengan relación con el futuro PGOU. Por esta razón piden celeridad en la revisión del mismo, mientras que no tienen celeridad en que se realicen las construcciones.

Nerea Guijarrubia bat dator GUK taldeak esandakoarekin, eta galdetzen du ea etxebizitza gehiago eraikitzeak konponduko dituen Getxon dauden etxebizitzaren arazoak, nahiz eta etxebizitza sozialak izan; arazoa konpontzea kudeatzeko moduaren mende dago. Etxebizitzaren arazoari buruzko ikuspegi osotua eduki behar da, eta udalak badu gaitasuna ekintza-ildo desberdinak lantzeko, etxebizitza gehiago eraikitzea soluziobide bakarra gisa planteatu gabe. Esperientziak erakusten du asko eraiki dela, baina horrek ez du esan nahi gazteentzako etxebizitzaren arazoa konpondu egin denik. EH Bildu hutsik dauden etxebizitzen zerrendaren zain dago, datu horiek beste jardunbide batzuk bilatzeko abiapuntu izan daitezke eta. Gaurko egoeran etxebizitzak eraikitzea –jarduketa bakarra gisa– ez zaie egokia iruditzen.

Nerea Guijarrubia comparte lo indicado por GUK y se plantea si construir más viviendas es la solución para resolver el problema de la vivienda en Getxo, aunque se trate de viviendas sociales ya que esto resolverá el problema depende de cómo se gestione. Hay que tener una visión integral sobre el problema de la vivienda y el ayuntamiento tiene capacidad para trabajar diferentes líneas de actuación sin que se plantee como única solución construir más viviendas. La experiencia demuestra que se ha edificado mucho pero no por eso se ha resuelto el problema de la vivienda para la juventud. EH Bildu está a la espera del censo de viviendas vacías ya que de esos datos se pueden fundamentar otras vías de actuación. La construcción de viviendas como única actuación no les parece adecuada en la situación actual.

Santiago Sainzek adierazi du etxebizitzak eraikitzea ez dela soluziobide bakarra etxebizitzaren arazoa konpontzeko, baizik eta estrategia orokor baten beste euskarri bat dela eta egin behar dela, jarduketa hori urrats txiki bat baino ez bada ere. Azaldu duenez, EAJ-PNV eta PSE-EEren 2009ko etxebizitza-planean 1.279 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zen, eta horien % 11,34 baino ez da egin. PPk gogorarazi du orain dela urtebete hirigintza arloko zinegotziak legealdi honetan 354 etxebizitza eraikitzea iragarri zuela, eta ez dela ezer egin. Bere iritziz, gobernu taldeari presioa

Santiago Sainz manifiesta que la construcción de viviendas no es la única solución para el problema de la vivienda, es una pata más de una estrategia global que debe realizarse, aunque esta actuación sea un pequeño paso. Indica que en el plan de vivienda de 2009 del PNV y PSE-EE se contemplaba la construcción de 1.279 viviendas y solamente se han construido el 11,34% de esa propuesta. Al PP le recuerda que hace un año el concejal de Urbanismo anunciaba la construcción de 354 viviendas en esta legislatura y nada se ha hecho. Estima que hay que presionar al equipo de

egin behar zaio etxebizitzak eraikitzeari buruzko promesak bete ditzan, baina etxebizitzaren arazoa konpontzeko beste bide batzuk ahaztu gabe.

gobierno que cumpla sus promesas de construcción de viviendas pero sin olvidar otras líneas a abordar para resolver el problema de la vivienda.

Eduardo Andradek azpimarratu du mozioak Getxon 64 etxebizitza sozial eraikitzea aipatzen duela; ezinbestekoa iruditzen zaio. Kritikatu egin ditu ez eraikitzea nahiago dutenak, erabiltzen dituzten arrazoiak direnak direla ere. Joseba Arregiri esan dio hirigintza-kudeaketa konplexua dela, baina 9 urte baino gehiago daramatzatela eta obrak oraindik ez direla hasi; hortaz, berriz kritikatu du gobernu taldearen gelditasuna, kudeaketari dagokionez.

Eduardo Andrade recalca que en la moción se habla de la construcción de 64 viviendas sociales en Getxo, lo que le parece que es absolutamente necesario. Critica a los que prefieren que no se construya en base a diferentes argumentos. A Joseba Arregi le indica que la gestión urbanística es complicada pero llevan más de 9 años y aún no se han empezado las obras, por lo que se ratifica en la crítica de la lentitud de la gestión del equipo de gobierno.

Enrique Pradak gogorarazi duenez, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza babestuak Santa Eugenia plazan eraiki nahi zituen, baina gobernu taldeak gune hori askatzea erabaki zuen, eta lurzoruen truke bat prestatu zuen, eta hori laster burutuko da. Amaitzeko esan du ez zirela mantendu lehen Erromo auzoan aurreikusitako babes ofizialeko etxebizitzak, eta orain, hala ere, Erromon eraiki nahi direla, Nagusien Etxea eraitsita.

Enrique Prada recuerda que el Gobierno Vasco pretendía edificar vivienda protegida en la plaza de Santa Eugenia y el equipo de gobierno decidió liberar ese espacio y trabajar una permuta de terrenos que es la que se pretende realizar próximamente. Finaliza indicando que antes no se mantuvieron las VPO que se preveía en Romo y ahora, sin embargo, se quieren implantar en Romo VPOs derribando la Nagusien Etxea.

Nerea Guijarrubiaren iritziz, une honetan, HAPOa berrikusten ari denean, etxe berriak eraikitzeko aukera ematea ez da arrazoizkoa. HAPO berria prestatuta eta hutsik dauden etxebizitzei buruzko azterketaren emaitzak ezagututa, etxebizitza berriak eraikitzeaz gain, hainbat ildo landu beharko dira dauden arazoak konpontzeko. Dena den, eraikitzen diren etxebizitzek alokairu-araubidean eta sozialak izan behar dute.

Nerea Guijarrubia opina que en este momento de revisión del PGOU no ven razonable posibilitar nuevas edificaciones. Cuando se tenga un nuevo PGOU y también cuando se conocozca el estudio de la vivienda vacía se tendrían que trabajar diferentes líneas además de construir nueva vivienda para solucionar la problemática existente. En todo caso aquellas viviendas que se realizan debían de ser sociales y mantenerlas en régimen de alquiler.

Joseba Arregik erantzun du udalak erantzun behar diola herritarren

Joseba Arregi replica que el ayuntamiento debe responder a las

etxebizitza premiari. Adierazi duenez, esaten da Getxon asko eraiki dela, baina HAPOk zortzi urtetan 5000 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zuela, eta 2001etik hona, hau da, HAPOa indarrean jarri zenetik, 2000 etxebizitza baino apur bat gehiago eraiki direla. Aitortu du gazte askok udalerria utzi behar izan dutela, etxebizitzarik eraikitzen ez delako. Getxon berez ez dago espekulazio arazorik, etxebizitzak, gutxi direnez, garestiak direlako. Ez da bete auzokoen premia, etxebizitzari dagokionez. Hutsik dauden etxebizitzen egoera aztertzen ari da. EH Bildu taldeari galdetu dio ea ezagutzen duen etxebizitza hutsak merkatura ateratzea lortu duen udalerririk.

necesidades de viviendas de la ciudadanía. Manifiesta que se comenta que en Getxo se ha construido mucho pero el PGOU preveía construir 5000 viviendas en ocho años y desde el año 2001, que entró en vigor, solamente se han construido algo más de 2000. Reconoce que muchos jóvenes han tenido que salir del municipio por la falta de construcción de viviendas. El problema de la especulación en Getxo no existe como tal ya que las viviendas son caras en Getxo porque hay pocas. No se ha dado respuesta a la vecindad sobre la necesidad de vivienda. Se está estudiando la situación de las viviendas vacías y a EH Bildu le pregunta si conoce algún municipio que haya conseguido sacar la vivienda vacía al mercado.

Santiago Sainzek esan du datorren astean hirigintza arloko zinegotziak bigarren etxebizitza-plana aurkeztuko duela, 2017. urtean lehenengoa aurkeztu zuelako. Getxon babes ofizialeko etxebizitza eskatzen dituztenen datuak eman ditu: erroldatutakoen artean 2400 pertsona dira eskatzaile; hori dela eta, 2009ko akordioan aurreikusitako etxebizitzak (1.279) eraikitzeko eskatzen dio gobernu taldeari. Horiei hutsik dauden etxebizitzak gehi dakizkieke (1.700 inguru izan daitezke), eta hori aurrerapausoa izango litzateke etxebizitzaren egoera konpontzeko bidean.

Santiago Sainz indica que la semana que viene entregará el concejal de Urbanismo el segundo plan de vivienda, ya que el año 2017 entregó el primero. Da datos de solicitantes de VPO en Getxo que ascienden a 2400 empadronados, por ello pide al equipo de gobierno que edifique las viviendas previstas en el acuerdo de 2009, que eran 1279 a las que se podrían añadir las que se deriven de las viviendas vacías que se estiman que pueden estar al orden de 1.700, con lo que se podría avanzar en la situación de la vivienda.

Eduardo Andradek adierazi du egoera horren erantzule –Getxon etxebizitzak eraikitzen ez direla– EAJ-PNV dela, betidanik gobernatzen duelako. Gobernuak legealdi honetan hiri-lurzoruan etxebizitzak eraikitzea proposatu duenean, PPk horren alde egin du. Eskatu dio gobernu taldeari Getxoberrin 2015ean xehetasun osoz

Eduardo Andrade manifiesta que los responsables de que no se hayan construido viviendas en Getxo es el PNV que lleva gobernando desde siempre. Cuando se ha planteado en esta legislatura por parte del gobierno actuar en construcción de vivienda en el suelo urbano el PP lo ha apoyado. Pide al equipo de gobierno al equipo de

aurkeztutako proposamena betetzea arintzeko. Mozioak obrak lehenbailehen hastea ekarriko duela espero du.

gobierno que agilice la propuesta que fue objeto de publicitación con todo detalle el año 2015 en Getxoberri. Espera que la moción agilice el comienzo de las obras.

Enrique Pradak adierazi du azken hogei urteetan eraikitako 2000 etxebizitza guztiak baliabiderik gabeko sektoreetara bideratu direla, beti izan baitira garestiak. Getxoko gazteentzat ez da soluziobidea izan. EAJ-PNVri leporatu dio jardunik eza etxebizitza arloan, zuzkidura-ekipamenduen arloan, etxebizitza babestuen arloan eta abar.

Enrique Prada manifiesta que las 2000 viviendas construidas en los últimos veinte años, todas ellas se han dirigido a sectores con recursos, ya que siempre han sido caras. A los jóvenes de Getxo no les ha supuesto ninguna solución. Responsabiliza al PNV de la falta de actuación en materia de vivienda, equipamientos dotacionales, viviendas protegidas, etc.

Nerea Guijarrubiak esan du gobernu taldearen datuak egiaztatzen dutela EH Bilduren tesia, etxebizitzak eraikitzeak, demografian beherakada izan arren, ez baitu arazoa konpondu. Gazteek jarraitzen dute Getxotik joaten, haien egoera prekarioa delako. Getxon dauden etxebizitzen prezioa balioa baino askoz altuagoa da, eta ez etxebizitzak gutxi direlako, espekulatzen delako baizik. Uste dute etxebizitzak eraikitzean soilik oinarritutako plana ez dela zuzena. Beste ekintza-ildo batzuk behar dira, errentamenduen, zergen eta abarrekoen arloetan. Inguruan zein Europan badaude esperientziak, gai horiei dagokienez.

Nerea Guijarrubia indica que los datos del equipo de gobierno corroboran las tesis de EH Bildu ya que la construcción de viviendas, pese a la disminución de la demografía, no ha resuelto el problema. Los jóvenes siguen abandonando Getxo por sus situaciones precarias. La vivienda en Getxo tiene un coste muy superior a su valor y no porque haya pocas sino porque se especula. Creen que no es correcto un plan únicamente basado en la construcción de viviendas. Demanda líneas de actuación en materia de arrendamientos, actuaciones fiscales, etc., indicando que existen experiencias en estas cuestiones tanto en el entorno como en Europa.

Joseba Arregik adierazi du hirigintza Osoko Bilkuraren eskumena dela, hortaz, erantzukizuna, neurri batean, talde guztiena dela. Osoko Bilkurak etxebizitzak eraikitzea ahalbidetuko duen trukeari buruzko ebazpena laster onartzea espero du, eta gustatuko litzaioke talde guztiak etxebizitzaren inguruan ados jartzea, EAJ-PNVk PSE-EErekin lortu duen itunari esker, legealdiaren bukaeran, babes ofizialeko 500 etxebizitza egongo baitira Getxon,

Joseba Arregi manifiesta que el urbanismo es competencia del Pleno por lo que todos los grupos tienen su parte de responsabilidad. Espera que en breve el Pleno apruebe el acuerdo de permuta que posibilite la construcción de las viviendas y le gustaría que todos los grupos se incorporaran al consenso de vivienda ya que gracias al pacto del PNV con el PSE-EE al final de la legislatura habrá 500 viviendas de VPO en Getxo, lo que es decir el 25% de lo

hau da, eraiki direnen % 25.

José Luis Landak adierazi du oposizio taldeek 2009ko etxebizitza-plana aipatu dutela, akordioa hiri-lurzoruaren inguruan bakarrik hartu zela gogoratuz. Hirigintza arloak adierazi du abstentzioak ez duela balio. Gobernu taldea da erantzule nagusia, akordio gehiago lortu ez duelako, baina Osoko Bilkuraren talde guztiek ere badute erantzukizunik. Gogorarazi du 2016an, beste talde batzuekin, erabaki garrantzitsuak hartu zirela, etxebizitzaren arloan. Bukatzeko esan du alokairu araubideko etxebizitza sozialak sustatzea dela lurraldea kudeatzeko gidalerroetan jasotako irizpidea.

Proposamena bozkatu da eta honako emaitza hau atera da: aldeko 6 boto (PP eta Ciudadanos); 19 abstentzio (EAJ-PNV, GUK, EH Bildu eta PSE-EE).

Gehiengoak onartutako mozioak:

2007tik prentsaurreko, jendaurreko agerraldi eta aldarrikapen ugari egin arren, Maidaganen eta Orduñako portuaren inguruan bizi diren herritarrek leku horren egoera jasanezina pairatu behar dute oraindik ere —parke publiko batez eta etxebizitza sozial batzuez osatuta egon behar luke—.

Egon behar lukeela diogu, udalaren utzikeriaren ondorioz, herritarrek ezin dutelako gozatu 2.151 m2-ko parke publikoaz, 51 zuhaitzez, 79 aparkaleku-plazaz, 21 kale-argiz, 29 bankuz, 6 paperontziz eta (denetan garrantzitsuena) 64 etxebizitza sozialez.

construido.

José Luis Landa manifiesta que los grupos de la oposición se han referido al plan de vivienda de 2009, recordando que se pactó únicamente para suelo urbano. En urbanismo manifiesta que no vale la abstención. La responsabilidad fundamental es del equipo de gobierno que no ha conseguido más apoyos, pero también es hay responsabilidades de todos los grupos del Pleno. Recuerda que en 2016 se adoptaron acuerdos de contenido importante en materia de vivienda con otros grupos. Finaliza manifestando que el criterio que se incorpora en las directrices de gestión del territorio es el de fomentar la vivienda social en régimen de alquiler.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 6 votos a favor, PP, Ciudadanos; 19 abstenciones, PNV; GUK, EH Bildu, PSE-EE.

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

A pesar de las innumerables ruedas de prensa, exposiciones públicas y anuncios varios que se remontan al año 2007, los vecinos del entorno de Maidagan y Puerto de Orduña se ven obligados a soportar el insoportable estado de lo que debería ser un parque público y unas viviendas sociales.

Y decimos que debería ser, porque la desidia y dejadez del Ayuntamiento están impidiendo a los vecinos disfrutar de un parque público de 2.151 m2, de 51 árboles, de 79 plazas de aparcamiento, de 21 luminarias de 29 bancos y de 6 papeleras y lo que es más importante, de 64 viviendas sociales.

Adierazi digutenez, Eusko Jaurlaritzari dagokio leku hori urbanizatzea eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea, baina ikus dezakegu ez dela aurrerapenik egin obra horien bilakaeran, eta, beranduago iragarritako beste batzuk, berriz, eboluzionatzen ari direla, poliki bada ere.

La urbanización y construcción de las VPOS corresponde, según nos informan, al Gobierno Vasco, pero a día de hoy podemos observar como nada se ha avanzado en el desarrollo de estas obras, mientras que otras anunciadas con posterioridad están evolucionando, de forma lenta pero evolucionando.

Alderdi Popularrak uste du udalak beharrezkoak diren ahalegin guztiak egin behar dituela gure udalerriko eremu hori garatzeko.

Desde el Partido Popular consideramos que desde el Ayuntamiento se deben hacer todos los esfuerzos necesarios para desarrollar esta zona de nuestro municipio.

Hori guztia dela eta, Popular Udal Taldeak honako ERABAKI-PROPOSAMEN HAU aurkezten du osoko bilkuran:

Por todo ello, el Grupo Municipal del Partido Popular, presenta en el Pleno la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA Getxoko Udaleko osoko bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio beharrezkoak diren neurriak har ditzan, eta Eusko Jaurlaritzari eska diezaion udalerriko eremu hori lehenbailehen urbaniza dadin eta aurreikusitako etxebizitzak eraiki daitezen.

PRIMERA El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Equipo de Gobierno para que adopte las medidas necesarias y requiera al Gobierno Vasco, para que a la mayor brevedad se urbanice y construyan las viviendas previstas en esta zona del municipio.

BIGARRENA Mozio honen berri eman dadin udal–komunikabideen bidez.

SEGUNDO Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

**95.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, 2018KO MUNDUKO FUTBOL-TXAPELKETA IKUSTEKO XEDEZ PANTAILA HANDIAK INSTALATZEARI BURUZKOA.**

**95.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/INSTALAR PANTALLAS GIGANTES PARA EL MUNDIAL DE FUTBOL 2018.**

Iñaki Gamerok ondorengo mozioa irakurri du:

Iñaki Gamero da lectura a la siguiente moción:

Espainiako selekzioa 2018ko Munduko Futbol Txapelketa jokatzen ari da.

La Selección Española de Futbol está disputando el Mundial de Futbol 2018.

Jakina, gertaera interesgarria da hori,

Este es, sin duda, un acontecimiento

futbol onaren zale guztientzat. Hori dela eta, Popular Udal Taldearen ustez, une egokia izan daiteke udalerriko plaza batzuetan pantaila erraldoiak jar daitezen partidak zuzenean ikusteko.

interesante para todos los aficionados al buen futbol y por ello desde el Grupo Municipal Popular consideramos que este puede ser un buen momento para que en algunas plazas del municipio se instalasen pantallas gigantes para seguir en directo dichos partidos

Futbola masa-kirola da, eta ziur gaude Espainiako selekzioa animatzeko pantaila horiek jarriz gero, ehunka pertsona bertaratuko direla, eta horiek, partidez gozatzeaz gain, gure dendetan eta ostalaritza-establezimenduetan kontsumituko dutela.

El futbol es un deporte de masas y estamos convencidos que la instalación de estas pantallas para animar a "La Roja", conllevará la presencia de cientos de personas que además de disfrutar del partido consumirán en nuestras tiendas y establecimientos hosteleros.

Horrez gain, uste dugu pantailak udalerriko auzo guztietara iritsi behar direla, ez bakarrik ohikoetara, eta, hortaz, pentsatzen dugu pantaila erraldoi horiek ezartzeko leku egokiak direla Areetako Xake plaza, Algortako San Nikolas plaza, Malakate parkea eta Gernika parkea. Nolanahi ere, udal-teknikariek proposatu beharko lukete pantailen behin betiko kokapena, beharrezkoak diren segurtasun-baldintzak, eragin ditzaketen eragozpenak eta abar aintzat hartuta.

Consideramos además, que las pantallas deben llegar a todos los barrios del municipio, no solo a los habituales y consideramos que los lugares idóneos para instalar estas pantallas gigantes pueden ser la plaza del Ajedrez de Las Arenas, la plaza de San Nicolás en Algorta, el parque de Malakate y el Parque de Gernika, aunque su ubicación definitiva debería ser propuesta por los técnicos municipales en atención a las necesarias condiciones de seguridad, molestias etc.

Horrenbestez, Popular Udal Taldeak honako ERABAKI-PROPOSAMEN hau aurkezten du:

Por lo que el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Getxoko Udalak pantaila erraldoiak jar ditzan gure udalerriko zenbait plaza eta parketan, 2018ko Munduko Futbol Txapelketan jokatutako partidez gozatzeko.

PRIMERO.- El Ayuntamiento de Getxo instalará pantallas gigantes en diversas plazas y parques de nuestro municipio para poder disfrutar de los partidos de futbol que se disputan en el Mundial de Futbol de 2018

BIGARRENA.- Mozio honen berri eman dadin udal–komunikabideen bidez.

SEGUNDO.- Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

Santiago Sainzek erdibidezko zuzenketa aurkeztu eta irakurri egin

Santiago Sainz presenta una enmienda trasaccional a la que da lectura:

du:

"*LEHENENGOA: Behar diren baldintzak betetzen dituzten kultura-gelak (Erromon eta Villamonten), Getxo Kirolak-eko ekitaldi-aretoa edo Areetako Musika Eskola Errusiako Futbol Txapelketako partida garrantzitsuenak ikusteko gaitzea, final-zortzirenetatik aurrera, Espainiako Selekzioaren partidak erreferentziatzat hartuta (baldin eta maila horretan sartzen bada)*".

"*PRIMERO: La habilitación de las aulas de cultura (Romo y Villamonte) que reúnan las condiciones necesarias, la sala de ceremonias de Getxo Kirolak, o la Musika Eskola de Las Arenas para la visualización de los partidos más importantes del Mundial de Rusia, a partir de octavos de final, teniendo preferencia (en caso de su clasificación) los partidos disputados por la Selección Española*"

Iñaki Gamerok adierazi du ez duela zuzenketa onartzen, emanaldi horiek plazetan egitea nahi dutelako, merkataritza-jarduera bultzatzeko.

Iñaki Gamero manifiesta que no acepta la enmienda porque lo que buscan es que esas actividades se realicen en las plazas para generar actividad comercial.

Ibon Rodríguezen iritziz, futbol masa-kirola dela egia denez, nahikoa laguntza jasotzen du erakundeetatik. Laguntzak ematekotan, erakundeek beste kirol batzuk lagundu beharko lituzkete; horiek ere udalerrian sustraituak egon arren, ez dira plazetan pantailak eskatzen lehiaketak ikusteko. Bere ustez, merkataritza-jarduera ez da areagotzen, jendeak partida ikusten duenean; izan ere, datorren partida igandean izango da. Tabernei dagokienez, guztiek telebista bat baino gehiago dituzte, eta plazetan pantailak jartzen badira, establezimendu horiek bezero gutxiago izango dute. Bere iritziz, mozioaren azken helburua *"la roja"* animatzea da, baina Getxon, proposamenarekin ados dagoen jendeaz gain, asko dira selekzioaren alde ez daudenak; izan ere, selekzioak galtzea nahi izango dute eta beste taldearen alde egingo dute, euskal selekzio bat egotea uzten ez denez, hemengo biztanleriaren zati handiak Espainiako selekzioa inposiziotzat jotzen duelako. Bakoitzak nahi duenaren alde egingo du, baina ez da beharrezkoa diru publikoa*"la roja"*

Ibon Rodríguez indica que es verdad que el fútbol es un deporte de masas y creen que tiene suficientes ayudas desde las instituciones. Cree que en todo caso habría que ayudar desde las instituciones a otros deportes que también están enraizados en el municipio y que sin embargo no se piden pantallas en las plazas para ver sus competiciones. Cree que cuando la gente ve el partido no se genera actividad comercial ya que, de hecho, el próximo partido es el domingo. Respecto a los bares, indica que todos tienen varias televisiones y las pantallas en las plazas pueden restar clientela a dichos establecimientos. Opina que el objetivo último de la moción es animar a la *"roja"*pero en Getxo existe gente que esta de acuerdo con esa propuesta pero también hay otra mucha gente que no va a apoyar a la selección sino que lo quiere es pierda y apoya al equipo contrario y eso se debe a que un sector importante de la población ve a la selección española como una imposición porque impide una selección vasca. Cada uno apoyará a quien quiera pero no hace falta destinar

animatzera bideratzea; horregatik, kontrako botoa emango dute.

Koldo Itrurbek esan du ez dutela eskaerarik jaso ez merkataritza edo ostalaritza sektoreetatik, ezta herritarrengandik ere; hortaz, interesik ikusten ez dutenez, kontra bozkatuko dute.

Susana Andollok esan du ez dutela proposamenaren alde egingo, ez baitute uste lehentasunezkoa denik; dendariengandik ez da eskaerarik jaso, eta gainera, pantaila horiek konkurrentzia izango dira ostalaritza-establezimenduentzat. GUKek futbola ez diren kirol guztien presentziaren alde egingo du, futbola nahiko ondo babestuta dagoelako. Arau orokorraren salbuespena izango litzateke Athleticek lehiaketa garrantzitsuetan jokatzen dituen partidak ematea.

Teresa Escalantek esan du PSE-EEk kultura gehiago eta kirol gutxiago behar dela irizten duela. Bere ustez, ez dago eskaririk ez gizartean, ez sektoreetan, eta gainera, jarduera horrek plazetan kale-zurruta sustatuko luke.

Santiago Sainzek adierazi du Ciudadanosek maiatzean, hau da, Munduko Futbol Txapelketa hasi baino lehen eta nahiko aurrerapenez, idazki bat aurkeztu zuela, final-zortzirenetatik aurrera jokatuko ziren partidak ikusteko aretoak gaitzeko. Uste du PPren proposamena ez dela serioa, pantailak kontratatzeko eta ekitaldi horiek eskatzen dituzten baimenak emateko administrazio-prozedurak izapidetu baino lehen, munduko txapelketa amaituko delako; hala ere, daukaten interesarekin koherente izateko, proposamenaren alde egingo dute.

dinero público para apoyar a la *"roja"*, por eso votarán en contra.

Koldo Itrurbe indica que desde los sectores del comercio y hostelería no han recibido ninguna petición ni tampoco de la ciudadanía se ha recibido ninguna petición por lo que no ven interés y por eso se opondrán.

Susana Andollo indica que no apoyan la propuesta porque no entienden que sea prioritaria ni ha habido peticiones de los comercios y además las pantallas serían competencia para los establecimientos hosteleros. GUK apoya la presencia de todos los deportes que no sean fútbol ya que este está suficientemente apoyado. Excepcionarían la retransmisión de los partidos del Athlétic en torneos significativos como una excepción dentro de la regla general.

Teresa Escalante indica que el PSE-EE apoya más cultura y menos fútbol. Entiende que no existe demanda social ni sectorial y además está actividad estaría fomentando el botellón en las plazas.

Santiago Sainz manifiesta que Ciudadanos en mayo presentó un escrito con suficiente antelación a la celebración del mundial para que se habilitaran salas para su visionado a partir de la fase de octavos. Cree que la propuesta del PP es poco seria ya que no hay tiempo para tramitar el procedimiento administrativo de contratación de las pantallas ni las autorizaciones necesarias para estos eventos antes de que se de por finalizado el campeonato del mundo, pero que por coherencia con el interés que tienen la apoyarán.

Iñaki Gameroren ustez, mozioak alderdi politiko batzuk haserretuko ditu, baina kirolak herritarrak batera ditzake. Uste du mozioa *ordaintzaile txarraren* aitzakiekin botatzen dela atzera. Azaldu duenez, Euskal Autonomia Erkidegoan 30.000 federazio-lizentzia daude, eta horrek erakusten du futbola oso errotuta dagoela gizartean; ostalaritza-jarduerarentzat positiboa izan daitekeela uste du, udalerria ezagutaraziko lukeelako. Kale-zurruta aipatzea zentzugabekeria iruditzen zaio. Gogorarazi du bere garaian PPk dagoeneko aurkeztu zuela kale-edana arautzeko ordenantza bat, baita mozioak ere, eta proposamen horiek baztertu egin zirela. PPk ez du gaian atzera egingo; gogorarazi ditu Espainiako Txirrindularitza Itzulia dela eta egindako eskaerak; hain zuzen ere, etapa baten hasiera edo bukaera Getxon egiteko eskatu zen, baina gobernu taldeak horren aurka egin zuen. Aurten, hala ere, ikusten du bai Bizkaiko Foru Aldundiak, bai Bilboko Udalak, babestu dutela Espainiako Txirrindularitza Itzuliaren irteera, EAJ-PNVko burukide garrantzitsuekin; hortaz, irizpide horiek Getxora ere hurbilduko direla espero du eta gogorarazi du, bere garaian, Errege Koparen finala ikusteko eskaerak jaso zirela.

Iñaki Gamero cree que la moción puede incomodar a algunos partidos políticos pero cree que el deporte puede aunar a la ciudadanía. Opina que se rechaza la moción con disculpas de *mal pagador*. Indica que en el País Vasco hay 30.000 licencias federativas, lo que demuestra la implantación del fútbol dentro de la ciudadanía y cree que es positivo para la actividad hostelera ya que se promocionaría el municipio. La referencia al botellón le parece una barbaridad y recuerda que el PP ya presentó en su día una ordenanza y también mociones para regular el botellón, propuestas que se han rechazado. El PP no va a cejar en el tema, recuerda las peticiones que realizó para la Vuelta Ciclista a España que tuviera una salida de etapa o llegada en Getxo y se ha encontrado con la oposición del equipo de gobierno pero ve que en el presente año tanto la Diputación Foral de Bizkaia como el Ayuntamiento de Bilbao han apoyado la salida de la Vuelta Ciclista a España con presencia importante de *burukides* del PNV, con lo que espera que esos criterios se acerquen también a Getxo y recuerda que hubo peticiones, en su momento, para ver la final de la Copa del Rey.

Ibon Rodríguezen arabera, munduko futbol-txapelketa ikusteko pantailak jarrita ere, jendea ez da Getxora etorriko. Futbola ez da zaleak bateratzen dituen kirol bat, errugbi bezalakoa. Espainiako itzuliari dagokionez, Espainia ez den beste herrialde batean hastea gero eta ohikoa denez, ez litzateke harritzekoa Euskaditik irtetea. Bere ustez, ezin dira konparatu Getxoko Atleticen zaleak

Ibon Rodríguez opina que porque se pongan pantallas para ver el mundial no va a venir gente a Getxo. El fútbol no es un deporte que una a las aficiones como es el rugby. Respecto a la vuelta a España opina que si cada vez es más habitual que parta de un país diferente a España no le extrañaría que pudiera salir de Euskadi. Entiende que no se puede comparar la afición en Getxo al Atlétic con la afición a la *"roja"*. Finaliza

eta*"la roja"*ren zaleak. Bukatzeko azpimarratu du ez dagoela ados diru publikoa *"la roja"* sustatzera bideratzeko proposamenarekin.

